

DIRU SARRERAK

Diru sarrera gehienak gure produktua salduz lortuko ditugu. Kasu honetan 650.000 euro inguru balioko du kotxe bakoitzak, kolorea eta barneko tapizeriaren baitan zerbait gehiago edo gutxiago.

Oso garestia denez, ordaintzeko 2 aukera emango dizkiegu bezeroei. Batetik, ahal izanez gero, ordainketa bakarrean finantzatuko dute, eta ezin badute edota errentagarriagoa iruditzen bazaie urte batean zehar ordaintzeko aukera izango dute ere.

Halere, dirua lortuko dugu bezeroen harpidetzaren bitartez, 200 euro hiruhileko bakoitzarengatik. Harpidetzen diren horiek hainbat abantaila izango dituzte, hala nola, zozketetan parte hartzeko aukera, edota deskontu ezberdinak.

Prezioak dinamikoak izango dira, horrela, produktuen edo zerbitzuen prezioak aldatu egiten dira denbora edo faktore jakin batzuen arabera. Modu honetan, eskuragarritasuna, eskaintza, eskaria, eta beste hainbat faktoren arabera egokituko ditugu prezioak.

Gure helburua gutxinaka denontzat eskuragarriak izango diren kotxeak egiten bukatzea da, kontuan hartuz merkeago saltzeko lehengai merkeagoak erabili beharko ditugula. Hau aintzat hartuta modelo bakarrarekin hasiko gara lanean baina arrakastatsuak bagara hori aldatu egingo dugu.